

# BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA: ZERBITZU SOZIALAK

## ✓ **PROPOSAMENA**

Herri mailan, jubilatutako pertsonentzako ezagutze dinamikak. Lagunarte bat sortzeko aukera emango duten dinamizazioa (egitasmo honek hasieran.

Kultura kolektiboa, kolaboratiboa eta elkar-zaintzailea sustatzeko proposamen ekofeminista batzuk aurkezten ditut. Gaur egungo bizi-erritmoetatik ihes egiteko modua izan daiteke, herri mailan, auzoz-auzo hainbat egitasmo abian jartzea: bizilagunen arteko harremanak sustatuko dituen, herritarren artean ekintzak elkarrekin egiteko aukera emango dutena, lagunarterik gabeko pertsonen artean erlazioak sustatuko dituen, etab.

Ekintza hauek ekofeministak dira, balio ekonomikorik ez dutelako eta herritarren oinarrizko beharrak asetzen dituelako: arduren banaketa, pertsonen arteko ezagutza eta elkartrukea, bizipoza, etab.

Ekintzek ez dute balio ekonomikorik, baina, aurre-lanketa egin beharko da egitasmo hauetan herritarrak parte hartzeko deia eginez (komunikazioa egin beharko da ekintza hauen baloreak transmititzeko). Ohitura aldaketa suposatzen dute eta gaur egun ez gaude ohituta modu honetan funtzionatzera. Bestalde, behin dinamikak ideatuta, planifikatuta eta herritarrei horren berri emanda, egitasmo guztiak auzotarrek antola ditzakete txandakako sistemarekin.

## ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Interesgarria da proposamena eta bat dator Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak azkeneko urtean martxan jarri dituen ekintzekin. Ekintza osagarria izango litzateke.

## ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Aurrekontua:  
Komunikazio lanketa: 1.500€  
Saioak 18 bider 150€/saioa: 2.700€  
Ekintzaren balorazioa: 300€  
Guztira: 4.500€

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Hamabi hilabete

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak antolatuko luke

## ✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak aurrekontuan

## ✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesuan aurrera joatea proposatzen da.